

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Cinquecento

TORINO (ITALIA), 1957ko UZTAILAREN 4A.

Dante Giacosa diseinatutako Fiat 500 berria aurkeztu zuten. Merkea zen (490.000 lira) eta orduko 85 kilometro egiteko gai zen. Eskaintza erakargarria zen baina, hasieran, beharbada sinpleegia zelako, ez zuen esperotako arrakastarik izan. Italia berreraikitze motor nagusietakoa izango zenari kosta egin zitzaion martxan jartzea.

30eko hamarkadaren hasieran Fiat-ek produktu nahiko arrakastatsua ipini zuen merkatuan, Balilla izeneko modelo, baina haren prezioa ez zegoen oraindik langile-klasearen eskura. Orduan Benito Mussolini Fiatego zuzendari Giovanni Agnelliarekin bildu zen, eta italiarrei 500.000 lira baino gutxiagoren truke auto bat eskaini behar zitzaicela esan zion. Ideia bikaina zen, eta Adolf Hitlerrek aliatu italiarren bideari heldu zion: Ferdinand Porsche 1.000 markotik beherako autoa egiteko eskatu zion; Volkswagen Beetle ezaguna jaio zen.

Torinoko fabrian, 1931an prest zegoen Fiat 500 Tutto Avanti modeloaren prototipoa, baina autoa frogatzear, irten eta kilometro gutxira, su hartu zuen. Merkatura 1936an iritsi zen lehenengoz Fiat 500 A, gerora Topolino izenez ezaguna egingo zena. Harre-
ra epel samarra izan zuen. Baina ez da harritzekoa, garai hartan 220 italiarretik batek baino ez baitzuen autoa; propor-

tzioa hamar aldiz handiagoa zen Frantzia eta 40 aldiz handiagoa AEBetan.

Faxismoaren eta II. Mundu Gerrako porrotaren ondoren, krisi moral eta ekonomikoa automobilgintzan ere antze-
man zen. Topolinoen salmentak behera egin zuen. Horregatik, 1953an, haren motorrari Hans Meter Bauhof-ek diseinatutako alemaniar karrozeria erantsi eta Fiat 600 eredu sortu zuten. Hala ere, haren bertsio atzeritarrek, Espainiako Seat 600ak batez ere, jatorrizkoak baino arrakasta handiagoa izan zuten.

Esan dugunez, 1957an ez zirudien Nuova 500ak ere aurreko modeloen muga gaindituko zuenik. Jaioberritan ez, behintzat. Berehala Nuova 500 Economica eta Nuova 500 Standard bertsioak merkaturatu zituzten, osagarri gutxi batzuk gehituta. Eta booma etorri zen. Auto hura italiarren neurrira eginda zegoen, industrializazioan oinarrituta hamarkada hartan mirari ekonomiko betean zegoen herriaren neurrira. Krisi ondoko gorakadaren ikur bilakatu zen, gazteriaren ikono. Eta Torinoko fabrika-
ko muntaia-kateetan langileek klase kontzientzia berreskuratzen zuten bitartean, kanpoan italiarren bizimodua aldatu zuten lau gorpil haiek. Guztira, 3,9 milioi ale saldu zituzten merkatuan egon zen hamazortzi urteetan. Eta modu horretan, laurhun urte geroago, Cinquecentoa eta berpizkundea berriro eskutik helduta iritsi ziren Italiara. ■



Cinquecentoa ikur bihurtu zen italiar belaunaldi oso batentzat.

ARRASTOAK



Potemkin gerraontzia filmeko irudi ezaguna. Klasikoa DVD formatuan salgai ipini berri dute.

POTEMKIN GERRAONTZIA

(1925) filma DVD formatuan argitaratu berri du Divisa Home Video etxeak. Filma errestauratu eta euskarri horretan salgai ipintzen dut lehen aldia da. Sergei Mijailovitx Eisensteinek zuzendua, pelikulak benetako gertakizun historiko baten berri ematen du: 1905ean Odessan errusiar ontzi horretako tripulazioa matxinatu zenekoa.

Film horrekin batera 20ko hamarkadako beste sobietar klasiko bat ere eman dute argitara, goitik behera zaharberritu ondoren: *Aelita* (1924) zientzia fikziozko filma, Yakov Protazanov-ek zuzendua eta Alexei Tolstoi kontearen nobelan oinarritua. Film horretan, Marteko erreginak mezua bidaltzen du Lurrera, laguntza eske. Aitak, planetako diktadoreak, preso dauka. Bi lurtarrek Marterainoko bidaia egingo dute, Aelita erreginarekin batera tiranoaren aurka borrokatzeko.